

Zornotzako Udal liburutegiak programa berri bi antolatu ditu

Herritarrentzat bizigune aktiboa izan nahian, ostegunean, arratsaldeko 18:00etan, antolatutako Making egitasmoa hasiko da Zornotzako Udal liburutegian. Programa herriko gazteentzat zuzendu da eta hitzetatik irudietara doazen bi workshop burutuko dira. Lehenengoan, Joseba Sarrionandiaren Anderea eta Inkuboa ipuina irakurri, laburtu, eta story board-a egin ondoren, ipuinaren trailerra grabatuko da. Lan hau, zinemagintzan aditua den Lara Izagirre zornotzarrak zuzenduko du. Beste workshop-a komikiaren inguruan mugitzen da, baina ohiko plantemenduarengandik areago joan nahi du, ez da margoztuko, norberak hartutako argazkiak prozesatu eta digitalki sortuko da komikia. Anartz Aranguenak zuzenduko du bigarren lan hau. Bestalde, urriaren 22an, 3-4 eta 5-6 urteetako haurrengan literaturarekiko zaletasuna suspertzeko beste programa bat izango da, I.G. Faktoria. Saioak ostiraletan burutuko dira eta gurasoetariko batekin joatea ezinbestekoa da.